



13

14

15

iraila
septiembre

ARTELEKU, Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)

Mintegi hau ERTZ Beste Musiken Jaialdia eta EREMUAk programaren barruan kokatzen da.

Jornadas incluidas dentro del programa del Festival de Otras Músicas ERTZ y del programa EREMUAk.

hirugarren belarria

Hizkuntza saihesten duten moduetan artikulaturik, hainbat soinu gertakizunek geure onetik ateratzeko gaitasun berezia dute. Beraz, ez da harritzekoa adierazpen hauetako hainbat mundu sinboliko, politiko eta sakratuarekin lotuak izatea.

Murray Schafer konposatzaile eta irakasleak "Zarata sakratua" deitu izan die egunerokotasunarekin hautsi eta onartutako arau guzien gainetik sortzen diren soinu horiei. Behin gizakiaren esku-hartzetik kanpo, zarata hauek boterearen adierazpide bihurtuko lirateke. Horren adibide Jainkoek eragindako trumoiak eta tximistak edo apezten ezkil eta danborrak. Schaferrek, ideia bera egokitzen du gaur egungo teknolojiara: sakratua eta ukiezina den zarata horrek, tresneria modernoetan eta zibilizazio sekularrean ere bere lekua egin duela argudiatuz.

Articulados en formas que parecen eludir el lenguaje, ciertos fenómenos sonoros tienen la rara virtud de sacarnos fuera de nosotros. Así, no es extraño que muchas manifestaciones sonoras se vinculen a las esferas de lo simbólico, de lo sagrado y de lo político.

El compositor y pedagogo musical Murray Schafer acuñó el término "Ruido Sagrado" para referirse a aquellos sonidos que, originalmente asociados a los fenómenos naturales, históricamente se emplearon en las celebraciones rituales con el objeto de romper con la normalidad y traspasar las reglas establecidas con total impunidad. Ruidos que una vez inmunizados de la intervención humana, era posible considerar como manifestaciones del Poder. Los dioses con sus truenos y sus rayos, y los sacerdotes con sus campanas o tambores serían la prueba de este fenómeno. Mas tarde, Schafer extiende esta línea argumentativa a la tecnología contemporánea, puesto que el Ruido Sagrado, argumenta, habría sido transferido poco a poco a las máquinas modernas y a la civilización secular.

Garai honetan kontuan izan beharrekoa da sakratutasunak beste makinaria batzuekin izan dezakeen zerikusia: adostasun sozialarekin, esaterako. Gizabanako modernoa eta bere barne-munduaren garapenean isolamendu akustikoak berebiziko garrantzia izan du (norberarentzako liburuaren irakurketatik i-pod-era). Hauek jendetzaren zarataren aurrean zein eraginkorrak izan daitezkeen argi ageri zaigu gaur. Agustín García Calvo, gaztelarazko hitz jokoaz baliatuz Medios de formación de masas/ Fedabide deitzen dituen arri gara. Edo bide berean, Guy Debord-ek Espektakuluaren Gizartea, eta Giorgio Agambenek Carl Schmitt-en irakurketa eginez "*arrakastaren forma modernoa*" bezala definitzen duen iritzi publikoaz. Beraz hemen, inguruan dagoen jendetzaren oihua, edo komunikazio prozeduren joan-etorria sintonia berberaren osagai dira: ereserkiak, kantatak, aurrez grabatutako barreak, txaloaldiak, kantu arrakastatsuak, mantrak, oihuak...

2011n hasi eta 2012an jarraituko duen mintegi hau, soinuak, sentimendu bakarrak eta errepikaezinak sortzeko duen gaitasunetik abiatu nahi dugu. Eta bide horri jarraituz eztabaida, argitalpen, entzunaldi eta erakusketek osatuz joango da. Egitasmo honen bidez entzumenaren funtzio politikoa eta errituala aztertu nahi dugu, demokratiko eta demagogikoa. Edo nahi bada, soinuak giza-taldeak batzeko duen gaitasun "sakratua".

La supervivencia de lo sagrado en el mundo contemporáneo tiene que ver también con esa otra maquinaria que es el consenso social. El aislamiento acústico ha jugado un papel esencial en la configuración de los conceptos de interioridad y de sujeto individual (desde la lectura de un libro para uno mismo al Ipod), pero estos muestran hoy su permeabilidad hacia el ruido de las multitudes en todo su esplendor. Nos referimos a eso que Agustín García Calvo denomina Medios de Formación de Masas, Guy Debord la Sociedad del Espectáculo o, más recientemente, Giorgio Agamben, releyendo a Carl Schmitt, refiriéndose a la opinión pública, define como "*la forma moderna de la aclamación*". Por lo tanto aquí, el ruido, el griterío de una multitud y el flujo de los procedimientos comunicativos son parte de una misma sintonía de himnos, cantatas, ovaciones, abucheos, mantras, risas enlatadas, grandes éxitos tarareados...

Este seminario, planteado como estudio continuado en varias sesiones públicas que tendrán lugar durante el 2011-2012, parte de la singularidad afectiva que es capaz de producir el sonido. Irá tomando forma a partir de debates, audiciones, publicaciones, conciertos y exposiciones y su objetivo es analizar la función política, democrática y demagógica, ritual y de cohesión social del sonido o, si se quiere, su sentido "sagrado".

Asteartea
Martes

13 | 19:00

Hirugarren belarria egitasmoaren aurkezpena Oier Etxeberriaren eskutik.

Carmen Pardo Salgado

"Soinuzko masajeak burbuila globalean"

Izan zen behin, batera abestea bizitza amankomunaren oinarria izan zen garai bat. Talde kantuak forma asko har zitekeen, baina guztietan mantentzen zen komunitatearen parte izatearen onarpena. Egun, apenas kantatzen dugu. Orain entzun egiten dugu.

Ondorioz, entzumena, bizitza amankomuna den burbuila global horretan presente bihurtzeko modu bezala aktibatzen da. Eta presentzia hori aintzakotzat hartzeak, soinuzko masajeek hartzen dituzten formak galdekatzea suposatzen du. Horrela, entzumena, boterearen ariketaren espazio pribilegiatu bezala agertuko zaigu.

Oharra: Irailaren 13 eta 14ko jardunaldiak gazteleraz egingo dira, 15ekoa euskaraz.

Presentacion del Proyecto Hirugarren Belarria por Oier Etxeberria.

Carmen Pardo Salgado

"Masajes sonoros en la burbuja global"

Hubo un tiempo en el que cantar al unísono era el fundamento de la vida en común. El canto unánime podía adoptar diversas formas pero, en todas ellas, se mantenía el reconocimiento de pertenencia a la comunidad. Ahora apenas se canta. Ahora se escucha.

La escucha está activada en continuidad como un modo de hacerse presente en esa burbuja global que es la vida en común. Atender a esa presencia, supone interrogar las formas que adoptan los masajes sonoros en la burbuja global. Con ello, se desvelará la escucha como un espacio privilegiado de ejercicio del poder.

Nota: Las sesiones de los días 13 y 14 se desarrollarán en castellano, la del día 15 en euskara.

Asteazkena
Miércoles **14** 19:00

Ramón Andrés

"Entzumenari, soinuari eta izpirtuari buruz"

Musikaren jatorria naturako soinuei eta lehenbiziko forma erlijio-formei estuki lotuta dago. Unibertsoa musikaren terminoen bidez interpretatua izan zen, eta aldiberean jakintza sortzeko eta garatzeko balio izan zuten. Modu batera edo bestera, musikak naturaz gaindikoarekin eta ezkutua den horrekin topo egitea suposatu zuen, alegia galderarekin, eta gizakiaren bilakaerak ezaugarri duen aztarna metafisikoarekin.

Marta García Quiñones

"Musikaren entzumena, arretaren eta memoriaren artean"

Edozein hiztegitan kontsulta egitea aski da entzumena arreta mota bat bezala ulertu ohi dugula baieztatzeko. Gure entzule esperientziak ordea, musika entzuterakoan arretaren ariketa memoriatik -entzuterakoan martxan jartzen dugun memoriatik, baina baita gure entzunaldien historiak osatzen duen memoriatik- banatzea ezinezkoa dela erakusten digu. Testuinguru honetan, hitzaldiak, gure kultur ingurunean musikari buruzko ikerketek arreta eta memoria nola azaldu dituzten erakusten duten pasarte argigarriak erakutsiko ditu, historian zehar entzumenaren praktiken eraldaketa teknologiko eta sozialekiko izan duten lotura azpimarratuko duen kontakizunaren bidez. Azterketa honetan baliabide digitalek musika erreproduzitzeko eta gordetzeko eskaintzen dizkiguten egoera berriak ere kontutan hartuko dira.

Ramón Andrés

"Del oído, el sonido y el espíritu"

El origen de la música está estrechamente vinculado a los sonidos de la naturaleza y a las primeras formas religiosas. El universo fue interpretado en términos musicales, y estos sirvieron también para generar y desarrollar el conocimiento. La música, de un modo u otro, supuso un encuentro con lo sobrenatural y oculto, es decir, con la pregunta, con la impronta metafísica que caracteriza el devenir humano.

Marta García Quiñones

"La escucha musical, entre atención y memoria"

La consulta de cualquier diccionario permite comprobar que la escucha es entendida comúnmente como una modalidad de la atención. Sin embargo, nuestra experiencia de oyentes indica más bien que en la escucha musical el ejercicio de la atención es inseparable de la memoria –de la memoria que ejercitamos al escuchar, pero también de la memoria constituida por la historia de nuestras escuchas. En este contexto, la conferencia presentará algunos episodios ilustrativos de cómo la atención y la memoria han sido abordadas desde los estudios musicales en nuestro entorno cultural, en un relato que subrayará su conexión con las transformaciones tecnológicas y sociales de las prácticas de escucha a lo largo de la historia. En el horizonte de análisis estarán presentes los nuevos escenarios que plantean a la atención y la memoria los medios digitales de almacenamiento y reproducción de música.

Arantxa Iturbe

"Behin. Zuretzat. Orain"

Hala hasi nintzen irratia egiten, eta hasiera hartatik gauza asko aldatu den arren, horretan jarraitzen dut egunero: behin, zuretzat eta orain ari naizela sinistuz. Behin delako nahi zaitut adi, zuretzat delako desio dut zuk aditzea, eta orain delako eskatzen dizut entzuteko. Aukera bakarra daukat zu erakartzeko, eta ahalegin horretan xahutzen ditut indarrak: behin, zuretzat eta orain ariko diren lagunak gonbidatuz. Eta irratialdi bakoitzean haiek entzunez, eta batez ere, adituz.

Patziku Perurenarekin solasean

"Ixo, lurra aditzen ikasi artio!"

Elkarrizketa honen abiapuntua gauzei deitu eta aditzean dago. Hitzaren mugak aitortuz, horrenbeste azaleko semantika ahazten lagundu dezakeen ariketa moduan planteatzen da. Bide horretan onomatopeiak, ahozkotasuna, arrazoia, isiltasuna, idazkera eta bertako hainbat idazlek gai hauen inguruan egindako ekarpenak hartuko ditu kontutan, Nikolas Ormaetxea "Orixe", Eduardo Gil Bera edo Pedro Salinas, besteak beste.

Hitzaldien ondoren eta ERTZ jaialdiaren egitarauaren barne, **Ferran Fages** musikariak kontzertua eskainiko du "Radi d'Or" laneko zatiak oinarri hartuz.

Aldiberean eta jardunaldiek irauten duten bitartean Sonoscop-Orquesta del Caos egitasmoaren **Gorrieriaren artxiboak** izeneko lan bilduma kontsultarako egongo da Artelekun.

Arantxa Iturbe

"Una sola vez. Para ti. Ahora"

Así empecé haciendo radio, y a pesar de que ha habido muchos cambios desde entonces, sigo empeñada en hacer radio una sola vez, para ti y ahora. Y por eso, me gustaría que me atendieras; por eso, deseo que me oigas, y te pido sin palabras, que me escuches. Tengo una única oportunidad para llamar tu atención, y gasto toda mi energía, cada día, en conseguirlo, invitando a personas que puedan hablarte una vez y ahora. Y dedico cada emisión a oírles, y sobre todo, a escucharles.

Conversaciones con Patziku Perurena

"¡Callad!... hasta aprender a escuchar el mundo"

El punto de partida de este diálogo es la llamada y la escucha de las cosas. Se plantea como un ejercicio consistente en desaprender tanta semántica superflua y reconocer los límites de la palabra. Siguiendo estos derroteros se hablará del silencio, la escritura, la razón, las onomatopeyas, la oralidad y las aportaciones de algunos autores cercanos a estos temas, como Nikolas Ormaetxea "Orixe", Eduardo Gil Bera o Pedro Salinas.

Después de las conferencias y siguiendo con el programa del festival ERTZ, el músico **Ferran Fages** ofrecerá un concierto con fragmentos de su obra "Radi d'Or".

Paralelamente durante todo las jornadas se podrá consultar en Arteleku la colección de obras sonoras Archivo de la sordera elaborada por el proyecto Sonoscop-Orquesta del Caos.

Carmen Pardo Salgado Gironako Unibertsitatean irakasle da. Parisko IRCAM-CNRS unitateko doktoretza ondorengo ikerlaria (1996-1998) izan da. John Cage, *Escritos al oído* (1999) liburuaren itzultzaile eta editore lanak bete zituen eta *La escucha oblicua : una invitación a John Cage* (2001); *Robert Wilson* (Miguel Morey-rekin elkarlanean, 2003); *Las TIC: una reflexión filosófica* (2009) y *En el mar de John Cage* (2009) liburuak idatzi ditu.

Ramon Andrés idazlea da eta besteak beste honako liburuen egile: *Diccionario de instrumentos musicales. Desde la Antigüedad a J.S. Bach* (1995/2001/2009), *Johann Sebastian Bach. Los días, las ideas y los libros* (2005), *El mundo en el oído. El nacimiento de la música en la cultura* (2008), *El oyente infinito. Reflexiones y sentencias sobre música (de Nietzsche a nuestros días)* (2008), *No sufrir compañía. Escritos místicos sobre el silencio* (2010), *Los extremos* (2011), eta (laister argitaratuko den) *Diccionario de música, mitología, magia y religión*.

Marta García Quiñones musikaren entzumenari buruzko doktoretza tesia prestatzen ari da Bartzelonako Unibertsitatean. 2003an, Zeppelin jaialdiaren barne, "La música que no se escucha. Aproximaciones a la escucha ambiental" jardunaldiak antolatuta zituen. Musikologiari buruzko hainbat nazioarteko eta nazio mailako kongresutan parte hartu du eta hainbat aldizkari akademikotan ere argitaratu ditu bere idatziak. Egun, Anahid Kassabian eta Elena Boschirekin batera *Ubiquitous Musics* izeneko antologia baten edizio lanetan ari da. "Sound in Media Culture. Aspects of a Cultural History of Sound" nazioarteko ikerlari sareko kide da.

Arantxa Iturbe Nafarroako Unibertsitatean ikasi zituen Informazio Zientziak eta 80. hamarkadatik hona Euskadi Irratian ari da lanean. Kontatzea bere pasioetako bat dela sinistuta idatzi ditu ipuinak, (*Ezer baino lehen, Lehenago zen berandu, Kontu- jaten*), idatzi ditu kronikak (*Ai, ama!*), idatzi ditu zutabeak, idatzi du antzerkia (*Ai, ama!, X, Aitarekin bidaiari*), idazten ditu egunero irratirako hitzak, eta urteekin jabetu da kontatzeak adina betetzen duela entzuteak. Horregatik gozatzen du egunero zer kontatua daukan jendeak erantzungo dizkion galderak pentsatzen eta idazten. Irratilaria da ofizioz; idazle, afizioz. Ametsak bete dituela esango luke, egunero amets egitea ofizioak eta afizioak pasioz bizitzeko ezinbesteko dela jakingo ez balu.

Patziku Perurena maestria ikasketak egin zituen, baina idazteari emana dago. Poesia ez ezik nobela ere egin du (*Emily*), ikerketa filologikoa (*Euskarak sorgindutako numeroak eta Koloreak euskal usuarioan*), saiakera (*Marasmus femeninus eta Harripilatan ezkutatu zeneko apo tipiaren burutazioak*) eta lan etnografiko erraldoi bat Leitzako historia xehea oinarri hartuta. Bere azkenengo lana *Goizuetan bada gizon bat*, Trabukoren kantari eskeinia dago.

Oier Etxeberriaren egitasmoa, Xabier Erkiziarekin (ERTZ jaialdia, Audiolab elkartea) elkarlanean.

Carmen Pardo Salgado es Profesora de la Universidad de Girona. Investigadora post-doctoral en la unidad IRCAM-CNRS de París (1996-1998). Se hizo cargo de la edición y traducción de John Cage, *Escritos al oído* (1999) y es autora de *La escucha oblicua: una invitación a John Cage* (2001); *Robert Wilson* (en colaboración con Miguel Morey, 2003); *Las TIC: una reflexión filosófica* (2009) y *En el mar de John Cage* (2009).

Ramon Andrés es autor, entre otros títulos, de los siguientes libros: *Diccionario de instrumentos musicales. Desde la Antigüedad a J.S. Bach* (1995/2001/2009), *Johann Sebastian Bach. Los días, las ideas y los libros* (2005), *El mundo en el oído. El nacimiento de la música en la cultura* (2008), *El oyente infinito. Reflexiones y sentencias sobre música (de Nietzsche a nuestros días)* (2008), *No sufrir compañía. Escritos místicos sobre el silencio* (2010), *Los extremos* (2011), y *Diccionario de música, mitología, magia y religión* (de próxima publicación).

Marta García Quiñones prepara una tesis doctoral sobre la escucha musical en la Universidad de Barcelona. En el 2003 coordinó, en el seno del Festival Zeppelin, el seminario internacional "La música que no se escucha. Aproximaciones a la escucha ambiental". Ha participado en seminarios y congresos nacionales e internacionales de musicología y publicado en varias revistas académicas. Actualmente está trabajando, con Anahid Kassabian y Elena Boschi en la edición de una antología que llevará por título *Ubiquitous Musics*. Es miembro de la red internacional de investigación "Sound in Media Culture. Aspects of a Cultural History of Sound".

Arantxa Iturbe cursó estudios de Ciencias de la Información en la Universidad de Navarra y desde la década de los 80 trabaja en Euskadi Irratia. Convencida de que contar es una de sus pasiones ha escrito cuentos (*Ezer baino lehen, Lehenago zen berandu, Kontu- jaten*), crónicas (*Ai, ama!*), columnas, teatro (*Ai, ama!, X, Aitarekin bidaian*) y escribe a diario palabras para radio. Con los años se ha dado cuenta de que escuchar le llena tanto como contar. Y por ello disfruta cada día pensando y escribiendo preguntas que serán respondidas por personas que tienen algo que contar. Es locutora de oficio; escritora por afición. Diría que ha cumplido sus sueños, si no supiera que soñar cada día es indispensable para vivir los oficios y las aficiones con pasión.

Patziku Perurena realizó estudios de magisterio, pero se dedica a la escritura. Además de poesía ha escrito novela (*Emily*), investigación filológica (*Euskarak sorgindutako numeroak y Koloreak euskal usuarioan*), ensayo (*Marasmus femeninus y Harripilatan ezkutatu zeneko apo tipiaren burutazioak*) y un enorme trabajo etnográfico tomando como base la historia de la localidad de Leizta. Su último trabajo *Goizuetan bada gizon bat*, esta dedicado a la canción tradicional de Trabuco.

Un proyecto de Oier Etxebarria en colaboración con Xabier Erkizia (festival ERTZ, Asociación Audiolab).

hirugarren belarria

Kristobaldegi, 14. Loiola. 20014
Donostia - San Sebastián

T 00 34 943 453 662

F 00 34 943 462 256

arteleku@gipuzkoa.net

www.ertza.net

www.arteleku.net



Nola heldu | Cómo llegar

-  25 / Amara - Martutene → Txomin - Enea
A1 / Donostia - Hernani → Txomin - Enea
-  Renfe / Irun - Brinkola → Donostia - Loiola
EuskoTren / Topo → Donostia - Loiola
-  A8/ Salida 5 → Martutene - Loiola

"Iru belarri-mota bereizi oi ditugu: 1) ageri dan aragizko belarri au; 2) irudimenaren belarria, ta 3) adimenarena edo zentzu ispiritualena esaten zaiona. (...) Lenengoarekin musika zoragarria entzuten da. (...) Bigarren belarria, irudimanarena, lanean jartzen da bere oroimena edo gogoramena piztuz. Zango-ariña da, ta guztiz ibiltari. (...) Geldiro-geldiro, motelduz motelduz joaten da, adimena bakarrik geltizen dala, entzundako arri-bizi edo oiartzun edo erantzun erdi-ixil batekin- Ola dijoa ixilduz, osotara itzali dedin arte, soñu, sorgin-soñu ta nolanaiko ots bixiko edo diferenteak. Hirugarren belarri antxen asten da."

– **Orixe.** Jainkoaren billa.

"Solemos diferenciar entre tres tipos de oídos: 1) esta oreja de carne que se aparece; 2) el oído de la imaginación y 3) aquel que es llamado de la inteligencia o del sentido espiritual. (...) Con el primero se escucha música maravillosa. (...) El segundo oído, el de la imaginación, se pone a trabajar encendiendo sus propios recuerdos y sus pensamientos. Es huidizo e itinerante. (...) Lentamente, va ralentizándose, hasta que queda sólo el intelecto, con una resonancia o una roca viva escuchada, o una respuesta casi silenciosa- Así van callando, hasta que se apagan totalmente, los sonidos, los embrujados y los otros, creados de cualquier sonar extraño, los diferentes. Allí comienza la tercera oreja.

– **Orixe.** Buscando A Dios.



ERTZ

eremuak

arteleku



/audiolab/

elkartea